

ERAIKINAK BIRGAITZEKO LAGUNTZA EKONOMIKOAK EMATEKO 2025EKO DEIALDI IREKIA (2025-01064)

1. artikulua.- XEDEA

Deialdi honen xedea da ezartzea zein baldintza eta epe bete behar diren Zamudioko Udalak udalerrian kokatutako hiru etxebizitza edo gehiagoko bizitegi-eraikinak birgaitzeko ematen dituen laguntza ekonomikoak izapidetzeko eta eskuratzeko.

2. artikulua.- ERAIKINEN ALDEZ AURREKO BALDINTZAK

Birgaitzeko laguntza ekonomikoak jaso ditzaketen elementu komunen gaineko obrak egiten dituzten bizitegi-eraikinek honako baldintza hauek bete beharko dituzte orokorrean:

- a) Higiezinaren erabilera nagusia bizitegirakoa izatea.
- b) Hiru etxebizitza edo gehiagoko bizitegi-higiezin kolektiboak izatea.
- c) Obrak era honetan sailkatuta egotea:
 - A) Segurtasuna hobetzea: Kalteen edo patologien ondorioz egiturari, estalkiari, zimenduei edo euste-hormei eragiten dieten jarduketak. Antzinasuna hamabi (12) urtekoa edo gehiagokoa izatea eskatzen da, deialdiaren datatik zenbatzen hasita. Obrak 1., 2., 3. edo 4. mailakotzat kalifikatuko dira.
 - B) Bizigarritasuna hobetzea: Eraikinaren erabiltzaileen bizi-kalitatea eta osasungarritasuna bermatzeko jarduketak, Eraikuntzaren Kode Teknikora egokituta. Antzinasuna hamabi (12) urtekoa edo gehiagokoa izatea eskatzen da, deialdiaren datatik zenbatzen hasita. Obrak 1., 2., 3. edo 4. mailakotzat kalifikatuko dira.
 - C) Eraginkortasun energetikoa: C kalifikazio energetikoa lortzeko esku-

CONVOCATORIA ABIERTA DE AYUDAS ECONÓMICAS PARA LA REHABILITACIÓN DE EDIFICIOS AÑO 2025 (2025-01064)

Artículo 1.- OBJETO

Es objeto de la presente convocatoria establecer los requisitos y plazos para la tramitación y obtención de ayudas económicas que el Ayuntamiento de Zamudio concede para la rehabilitación de edificios residenciales, colectivos de tres o más viviendas situadas en el municipio.

Artículo 2.- CONDICIONES PREVIAS DE LOS EDIFICIOS

Con carácter general, los edificios residenciales cuyas obras sobre elementos comunes sean susceptibles de obtener ayudas económicas para su rehabilitación, deben cumplir los requisitos siguientes:

- a) Que el uso principal del inmueble sea residencial.
- b) Tratarse de inmuebles residenciales colectivos compuestos por tres o más viviendas.
- c) Que las obras se clasifiquen en:
 - A) Mejora a la Seguridad: Actuaciones que afecten a la estructura, a la cubierta, a la cimentación, a la cimentación o muros de contención, como consecuencia de daños o patologías. Se requiere que la antigüedad sea igual o superior a doce (12) años desde la fecha de la Convocatoria. Las obras estarán calificadas de grado 1, 2, 3 o 4.
 - B) Mejora a la Habitabilidad: Actuaciones que garanticen la calidad de vida y salubridad de los usuarios del edificio, adaptándose al Código Técnico de la Edificación. Se requiere que la antigüedad sea igual o superior a doce (12) años desde la fecha de la Convocatoria. Las obras estarán calificadas de grado 1, 2, 3 o 4.
 - C) Eficiencia Energética: Intervenciones para alcanzar la calificación energética

hartzeak. Halaber, hogeita bost (25) urteko edo gehiagoko antzinasuna duten eraikinetan diruz lagundu ahal izango dira kalifikazio energetikoa gutxienez maila bat hobetzeko eskuhartzeak.

3. artikulua.- PERTSONA EDO ENTITATE ONURADUNAK ETA BATERAGARRITASUNA BESTE LAGUNTZA BATZUEKIN

1.- Laguntzen pertsona edo entitate onuradunak bizitegi-eraikinen jabe diren erkidegoak izango dira, legearen arabera Zamudio udalerrian eratuak.

2.- Laguntzok bateragarriak dira beste erakunde publiko batzuen dirulaguntza edo laguntza batzuekin. Hala badagokio ematen den udal dirulaguntzaren zenbatekoa, eskuratutako beste dirulaguntza edo laguntzekin baturik, ezin izango du gainditu diruz lagundutako obraren edo instalazioaren kostu osoa.

3.- Laguntzaren xede diren obrek dagokien udal-lizentzia lortuta izan behar dute, amaituta egon behar dute eta ez dira izango lehenago dirulaguntzaren bat jasotakoak obrak.

4.- Laguntza eskuratzeko ezinbesteko baldintza izango da pertsona edo entitate onuradunak Zamudioko Udalarekin duen edozein zerga-obligazio egunean izatea.

4. artikulua.- FINANTZA-BALIABIDEAK

1.- Deialdi honetarako xedatu den zenbatekoa hogeita hamar mila (30.000,00€) eurokoa da, Udalaren gastuen aurrekontuko "Eraikinak birgaitzeko dirulaguntza" izeneko 1522-78102 partidaren kargura.

2.- Diru-izendapen hori agortu ondoren, laguntzak eten egingo dira aurrekontuan beste diru-zuzkidura bat izan arte.

3.- Aurrekontuko diru-zuzkidura gehitu ahal izango da, baldin eta, zenbat eskaera aurkeztu diren ikusirik, oinarri arautzaileetan eta deialdi honetan

C. También serán susceptibles de ser subvencionables, en los edificios con una antigüedad igual o superior a veinticinco (25) años, las intervenciones tendentes a mejorar al menos un nivel en la calificación energética.

Artículo 3.- PERSONAS O ENTIDADES BENEFICIARIAS Y COMPATIBILIDAD CON OTRAS AYUDAS

1.- Las personas o entidades beneficiarias de estas ayudas serán las comunidades propietarias de los edificios residenciales, legalmente constituidas en el municipio de Zamudio.

2.- Estas ayudas son compatibles con otras subvenciones o ayudas procedentes de otras entidades públicas. El importe de la subvención municipal concedida en su caso, sumado a otras subvenciones o ayudas obtenidas, nunca podrá superar el coste total de la obra o instalación subvencionada.

3.- Las obras objeto de ayuda deberán haber obtenido la correspondiente licencia municipal, haberlas finalizado y que no hayan sido objeto anteriormente de concesión de subvención.

4.- Será condición indispensable para obtener la ayuda que la persona o entidad beneficiaria se encuentre al corriente de pago de cualquier clase de obligación tributaria con el Ayuntamiento de Zamudio.

Artículo 4.- RECURSOS FINANCIEROS

1.- La cuantía destinada a esta convocatoria asciende a treinta mil (30.000,00 €) euros, con cargo a la partida del presupuesto de gastos del Ayuntamiento de 1522-78102: "Subvención rehabilitación de edificios".

2.- Una vez agotada dicha consignación, se suspenderán las ayudas hasta la existencia de nueva dotación presupuestaria.

3.- La dotación presupuestaria podrá ser incrementada si a la vista de las solicitudes presentadas, cumpliendo lo establecido en las bases reguladoras y en la presente

ezarritakoa bete ondoren, diru-zuzkidura hori nahiko ez bada; beharrezkoa den aurrekontu-aldaketa egin beharko litzateke.

5. artikulua.- ZENBATEKOA

1.- Laguntza ekonomiko hau itzuli beharrik gabeko dirulaguntza bat izango litzateke, obra-motaren guztizko kostu errearen ehuneko bat aplikatuta; kostu hori Udalak obraren behin betiko likidazioan onartutako zenbatekoa izango da, BEZa eta udaleko tasak eta zergak kanpo, betiere dagokion partida urteko aurrekontu-muga gainditu barik, koadro honen arabera:

SARRERAK	LAGUNTZA REN EHUNEKOA	GEHIENE KO MUGA
A motako obrak	% 5	7.200 €
B motako obrak	% 8	9.600 €
C motako obrak	% 10	12.000 €

2.- Eskaera bakoitzeko emango den gehieneko zenbatekoa ezin izango da inoiz hamabi mila (12.000,00) eurotik gorakoa izan, 3. eta 4. artikuluetan jasotako mugak eragotzi barik.

3.- Laguntzen onuradunek 2. artikuluan sailkatutako obra mota bat baino gehiago egiten badituzte, obra-mota bakoitzeko jasoko dituzte laguntzak, baina jaso beharreko zenbatekoak ez du gaindituko 5.2 puntuan ezarritako gehienekoa.

4.- Dirulaguntza gerora ordaintzekoa da; dirulaguntza ematearen aldeko ebazpena egin arte ezin izango da osorik ordaindu, beraz.

6. artikulua.- LAGUNTZAK IZAPIDETZEA

1.- Deialdi honetan aurreikusitako laguntza ekonomikoak eskuratzeko, pertsona edo entitate interesdunek (erkidegoak) dagokion eskaera aurkeztu beharko dute Erregistro Orokorrean, eta eskaera horri 7. artikuluan adierazitako dokumentazioa erantsi.

convocatoria, la dotación fuera insuficiente; se procedería a la modificación presupuestaria correspondiente.

Artículo 5.- CUANTÍA

1.- La ayuda económica consistiría en una subvención a fondo perdido aplicando un porcentaje del coste total real del tipo de obra, entendiéndose por tal el importe que haya sido objeto de aprobación por el Ayuntamiento en la liquidación definitiva de las obras, excluido el IVA, tasas e impuestos municipales, dentro de los límites presupuestarios anuales que tenga impuesto por la partida correspondiente, según el cuadro adjunto:

INGRESOS	PORCENTAJE DE AYUDA	LIMITE MAXIMO
Obras tipo A	5%	7.200 €
Obras tipo B	8%	9.600 €
Obras tipo C	10%	12.000 €

2.- La cuantía máxima de la ayuda por solicitud, no podrá ser en ningún caso superior a doce mil (12.000,00) euros, sin perjuicio de los límites que constan en los artículos 3 y 4.

3.- En caso de que los beneficiarios de las ayudas realicen obras de más de un tipo de las clasificadas en el Art. 2, percibirán las ayudas por cada uno de los diferentes tipos de obra, sin que la cantidad a percibir supere el máximo establecido en el punto 5.2.

4.- La subvención tiene el carácter de pos pagable, por lo cual solo podrá abonarse íntegramente una vez se acuerde la resolución favorable a la concesión de la misma.

Artículo 6.- TRAMITACIÓN DE LAS AYUDAS

1.- Para acogerse a las ayudas económicas previstas en esta convocatoria las personas o entidades (comunidades) interesadas deberán presentar en el Registro General la correspondiente solicitud, con la documentación a que se hace referencia en el artículo 7.

2.- Xedapen iragankorrean xedaturikoa eragotzi barik, laguntzak ebazteko erabiliko den lehentasun-hurrenkera laguntza-eskaera aurkeztu den egunaren arabera izango da, deialdian eskaturiko dokumentazioa eta baldintzak behar bezala bete badira eta ezarritako zenbatekoei eta aurrekontu-mugei jarraitu bazaizkie. Horren ondorioz, ez da norgehiagoka egingo; dena den, hilabete natural berean aurkezturiko eskaera guztiek hurrenkera-lehentasun bera izango dute.

3.- Dirulaguntza ukatu egin daiteke, arrazoiak emanda, baldin eta eraikinen ikuskapen teknikoan (EIT) antzematen bada badituela kalte batzuk, egonkortasunari, segurtasunari, estankotasunari eta egituraren sendotasunari eragiten dietenak, behar bezala konpondu ez direnak. Horretarako EIT agiria aurkeztu beharko dute.

7. artikulua.- ESKAERAK: EPEA ETA DOKUMENTAZIOA

1.- Laguntzak eskuratu nahi dituzten pertsona eta entitateek (etxejabeen erkidegoak), eskaera aurkeztu beharko dute, dokumentu hauekin batera:

- a) Eskaera, horren ardura hartu duen erkidegoaren presidentek edo administratzaileak aurkeztua.
- b) Teknikari eskudunak eginiko proiektua eta partidaka bereizitako aurrekontua. Dokumentazio hori lehendik aurkeztuta badago obra-lizentzia eskaerarekin batera, ez dago zertan berriro erantsi dirulaguntza eskabideari.
- c) Eraikinaren Ikuskapen Teknikoaren txostena, higiezin horren antzintasuna edozein dela ere, azaroaren 21eko 241/2012 Dekretuan eta maiatzaren 20ko 80/2014 Dekretuan aurreikusitakoaren arabera,

2.- Sin perjuicio de lo dispuesto en la Disposición Transitoria, el orden de prelación que se seguirá para resolver la concesión de ayudas, será el de la fecha de la presentación de la solicitud de ayuda con la documentación requerida en la presente convocatoria y cumplimiento de los requisitos establecidos en esta convocatoria, por los importes establecidos y dentro del límite presupuestario. En consecuencia no se aplicará la concurrencia competitiva. No obstante, todas las solicitudes presentadas durante el mismo mes natural, tendrán la misma consideración a efectos de prelación.

3.- Podrá denegarse motivadamente la subvención, en el caso de que con arreglo al ITE (Inspección técnica de edificios) se detecten desperfectos en el inmueble que afecten a su estabilidad, seguridad, estanqueidad o consolidación estructural, que no hayan sido debidamente reparados. Para lo cual deberán presentar la ITE.

Artículo 7.- SOLICITUDES: PLAZO Y DOCUMENTACIÓN

1.- Las personas y entidades (comunidades de personas propietarias) que deseen optar a las ayudas deberán realizar la correspondiente solicitud, acompañada de los siguientes documentos:

- a) Solicitud presentada por la persona o presidente/a o administrador/a de la Comunidad a quien se ha asignado la tramitación de la solicitud.
- b) Proyecto formulado por Técnico/a competente y Presupuesto descompuesto por partidas. En el caso de que esta documentación ya estuviera presentada con motivo de la solicitud de la licencia de obras no será necesaria volver a adjuntarla a la solicitud de la ayuda.
- c) Informe de Inspección Técnica del Edificio, independientemente de su antigüedad, conforme a lo previsto en el Decreto 241/2012, de 21 de noviembre y el Decreto 80/2014, de 20 de mayo, salvo que ya se hubiera

- | | |
|--|--|
| salbu eta lehenago Udalari aurkeztu bazaio. | aportado con anterioridad al Ayuntamiento. |
| d) Etxejabeen erkidegoaren IFKren fotokopia. | d) Fotocopia del CIF de la comunidad. |
| e) Eskatzailearen NAN agiriaren fotokopia. | e) Fotocopia del DNI del solicitante. |
| f) Erkidegoaren Batzarraren erabakiaren fotokopia, eta agirian hauxe agertu beharko da: | f) Copia del acuerdo de la Junta de la Comunidad donde conste lo siguiente: |
| <ul style="list-style-type: none"> • Eraikina birgaitzeko udal dirulaguntza eskatuko dela. • Dirulaguntza bideratzeko ardura duen presidentearen edo administrazioarearen alde berariaz eginiko izendapena. | <ul style="list-style-type: none"> • Solicitar la subvención municipal por rehabilitación de edificio. • Designación expresa de la persona designada presidenta/e o administrador/a responsable de tramitar la subvención. |
| g) Banku-ziurtagiria, pertsona edo entitate onuradunaren (jabeen erkidegoa) izeneko banku-kontuaren titulartasunari buruzkoa. | g) Certificado bancario de titularidad de cuenta bancaria a nombre de la persona o entidad (comunidad de propietarios y propietarias) beneficiaria |
| h) Obren amaierako likidazioa. | h) Liquidación final de obras |
| i) Enpresa kontratistari egindako ordainketen egiaztagiriak. | i) Justificantes de los pagos realizados a la empresa contratista. |
| j) Pertsona edo entitate (erkidegoa) eskatzailearen erantzukizun-adierazpena, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan dirulaguntzak eskuratzeko ezarritako debeku-kasuren baten ere ez dagoela egiaztatzen duena. | j) Declaración responsable de no estar incurso la persona o la entidad solicitante (la comunidad) en ninguna de las prohibiciones para obtener subvenciones establecidas en el artículo 13 de la Ley 38/2003 General de Subvenciones. |
| k) Erantzukizun-adierazpena, helburu berbererako erkidegoak eskatu dituen edo erkidegoari eman zaizkion beste laguntza batzuen. Eta beste laguntza batzuk eman bazaizkio, ebazpenaren fotokopia. | k) Declaración responsable acreditativa de otras ayudas que hubiese solicitado o se le hubiesen concedido a la comunidad, con el mismo fin. En caso afirmativo, copia de la resolución de la concesión. |
| l) Foru Ogasunari ordaindu beharreko zergak ordaindu direla egiaztatzen duen ziurtagiria. | l) Certificado acreditativo de estar al corriente del pago de impuestos con la Hacienda Foral. |
| m) Gizarte-Segurantzari egin beharreko ordainketak egin direla egiaztatzen duen ziurtagiria. | m) Certificado de estar al corriente del pago de las obligaciones con la Seguridad Social. |
| n) Jarduera bererako dirulaguntza eskatu bada beste edozein erakunde publiko | n) En el caso de haberse presentado solicitud de subvención para la misma |

edo pribatutan, berariaz adierazi beharko da hori, eta zehaztu egin beharko da zein erakundetan aurkeztu den finantzaketa-eskaera, eta eskatutako edo, hala badagokio, jasotako zenbatekoa. Bestela, zinpeko aitorpena aurkeztu beharko da, Erkidegoaren presidenteak sinatua, laguntzarik edo dirulaguntzarik eskatu ez dela edo eskuratu ez dela aitortzeko bertan.

2.- Zamudioko Udalak ofizioz egiaztatuko du ordainduta ote dauden hirigintza-lizentzia emateko eskaeraren ondoriozko tasa eta dirulaguntzaren xede den obrari dagokion Instalazio, eraikuntzen eta obren gaineko zerga, eta onartuta ote dagoen dirulaguntzaren xede den obraren amaierako likidazioa.

3.- Artikulu honetan aipaturiko agiri eta datuez gain, Udalak, kasuan kasu, aurkeztutako proiektuaren balorazio orokorra egiteko egoki jotzen dituen beste agiri osagarri batzuk ere eskatu ahal izango dizkio eskatzaileari.

4.- Eskabideak deialdi honetako baldintza guztiak bete ezik, organo eskudunak pertsona interesdunari eskatuko dio gehienez hamar eguneko epe luzaezinean hutsak zuzentzeko, eta zuzendu ezik, adieraziko dio eskaeran atzera egin duela ulertuko dela dagokion ebazpena eman ondoren, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 68. artikuluan zehaztutako legez.

5.- Laguntza-eskaerak aurkezteko epea, 2025eko urriaren 1ean hasi eta 2025eko urriaren 31n amaituko da.

Epe barruan aurkezten ez diren laguntza-eskaerei edo epe horren ondoren aurkeztutakoei ezezkua emango zaie, denboraz kanpo aurkezteagatik.

aktividad ante cualquier otro organismo, público o privado, deberá incluir una manifestación expresa en tal sentido, con indicación de las instituciones ante las que se haya presentado la solicitud de financiación y la cuantía solicitada, o en su caso, recibida. En caso contrario deberá presentar declaración jurada de no haber solicitado y/o obtenido ninguna ayuda o subvención, suscrita por el la persona que presida la Comunidad.

2.- El Ayuntamiento de Zamudio comprobará de oficio el pago de la Tasa de solicitud de Licencia urbanística y del Impuesto sobre Instalaciones, construcciones y obras, así como la acreditación de la aprobación de la liquidación final de la obra objeto de subvención.

3.- Además de los documentos y datos relacionados en el presente artículo, el Ayuntamiento podrá, en atención a cada caso concreto, requerir al solicitante cualquier otra documentación complementaria que considere oportuna a los efectos de la valoración de conjunto del proyecto presentado.

4.- Si la solicitud no reúne todos los requisitos establecidos en esta convocatoria, el órgano competente requerirá a la persona interesada para que los subsane en el plazo máximo e improrrogable de diez días, indicándole que si no lo hiciese, se le tendrá por desistido de su solicitud, previa resolución que deberá ser dictada en los términos previstos en el artículo 68 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

5.- El plazo para presentar las solicitudes se iniciará el 1 de octubre de 2025 y finalizará el 31 de octubre de 2025.

Aquellas solicitudes, que aun cumpliendo con los requisitos objeto de ayuda, no hubieran solicitado la ayuda en dicho plazo, o la solicitaran con posterioridad, serán denegadas por presentación extemporánea.

8. artikulua.- ESPEDIENTEA IZAPIDETZEA

1.- Laguntza-eskaerak Tokiko Gobernu Batzarrak ebatziko ditu, Ogasun, Herritarren Arreta eta Enplegu Sailaren Zinegotzitzak proposaturik, egin beharreko txosten teknikoa eta juridikoa idatzitakoan. Laguntzei buruzko izapideen instrukzioa Udaleko Diruzaintzari dagokio.

2.- Administrazioak honako agiri hauek jaso beharko ditu espedienteen, ebazpena emateko derrigorrezkoa baitira:

- a) Udal-diruzainaren ziurtagiria, erki-degoak Udalari egin beharreko ordainketak egin dituela egiaztatzeko, batik bat, diruz lagundu beharreko obrari buruzko zergak.
- b) Behin betiko proiektua (oniritzi eta guzti), eginiko obraren amaierakoa, arduradun teknikoarena.
- c) Obra-amaieraren aldeko hirigintza-txostena.

Hirigintzako teknikariek egiaztatu egin beharko dute eraikuntzak betetzen duela 2. artikuluan ezarria. Eraikinaren EIT txostena legez bideratu dela ere egiaztatu egin beharko da.

3.- Ebazteko eta interesdunei jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa da, eskaera dagokion dokumentazioarekin batera aurkeztu den egunetik aurrera.

4.- Edozein kasutan ere, dirulaguntza emateko baldintza da dirulaguntzari buruz ebazteko unean kreditu egokia eta nahikoa izatea.

9. artikulua.- LAGUNTZA ORDAINTZEA

Dirulaguntza ematea ebatzi ondoren, dirulaguntzaren zenbatekoa beranduen hilabeteko epean sartuko da pertsona

Artículo 8.- TRAMITACIÓN DEL EXPEDIENTE

1.- La resolución de las solicitudes de ayuda se realizará por la Junta de Gobierno Local a propuesta de la Concejalía del Área de Hacienda, Atención Ciudadana y Empleo, previos los informes técnico y jurídico que correspondan. La instrucción de la tramitación de las ayudas corresponderá a la Tesorería del Ayuntamiento.

2.- El Ayuntamiento incorporará al expediente la siguiente documentación, sin la cual no podrá resolverse la solicitud:

- a) Certificado del Tesorero Municipal de que la Comunidad está al corriente de los pagos con el Ayuntamiento, y en especial de los tributos relativos a la obra a subvencionar.
- b) Proyecto definitivo (visado) correspondiente al fin de obra del personal técnico responsable de la obra ejecutada.
- c) Informe urbanístico favorable de fin de obra.

El personal técnico de urbanismo verificará que la edificación cumple lo previsto en el artículo 2. También se verificará la tramitación legal de la ITE del edificio.

3.- El plazo máximo de resolución y notificación a las personas interesadas es de seis meses contados a partir de la presentación de la solicitud junto con la documentación correspondiente.

4.- En todo caso, la concesión de la subvención queda condicionada a la existencia de crédito adecuado y suficiente en el momento de resolución de la misma.

Artículo 9.- ABONO DE LA AYUDA

Adoptado el acuerdo sobre concesión de la subvención, el importe de ésta se ingresará en el plazo máximo de un mes en la cuenta

onuradunak eskabidean helburu horretarako adierazitako banku-kontuan.

Zerga-betebeharren edo Gizarte Segurantzarekiko betebeharren ordainketa egunean dagoela egiaztatzen duten Foru Ogasunaren eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Sailaren ziurtagiriak iraungita badaude igarotako denboraren ondorioz, dirulaguntza ez da ordainduko indarrean dauden beste ziurtagiri batzuk aurkeztu arte.

10.- artikulua.- BETEKIZUNAK EZ BETETZEA

Egiaztatuko balitz laguntza emateko ezarritako baldintzak ez direla bete, emandako dirulaguntza itzuli beharra edota Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren araudiko zigorak bete beharra egin daiteke.

11.- artikulua.- DIRULAGUNTZA ITZULTZEKO ARRAZOIAK

Honako kasu hauetan, itzuli egin beharko da dirulaguntza, berandutza-interesak eta guzti, hargatik beste erantzukizun batzuk eragotzi gabe:

- Dirulaguntza eskuratzeko, bete beharreko baldintzak faltsutu dira edota dirulaguntza ematea eragotzi zezaketen baldintzak ezkutatu dira.
- Udal-lizentziak baimendutako obra-proiektua ez da osorik bete edo zati bat falta zaio, edo dirulaguntzak babesten ez dituen kontzeptuak edo obra-unitateak sartu dira obraren exekuzioan, edo obraren amaierako kostua faltsutu egin da.
- Udalaren egiaztatze- eta kontrolatze-jarduketei uko egin zaie, aitzakiak eman dira edo oztupoak jarri dira.
- Emandako dirulaguntzaren edo laguntzaren kostua baino handiagoa da finantzaketa, edota beste erakunde publiko edo pribatu baten beste

bancaria que la persona beneficiaria haya señalado a tal fin en el impreso de solicitud.

En el caso de que, por el tiempo transcurrido, los certificados acreditativos de estar al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias o frente a la Seguridad Social, expedidos por la Hacienda Foral y la Tesorería de la Seguridad Social estuvieran caducados, no se procederá al abono de la subvención en tanto en cuanto no se hayan presentado nuevos certificados en vigor.

Artículo 10.- INCUMPLIMIENTO DE REQUISITOS

La constatación de la existencia de cualquier supuesto de incumplimiento de las condiciones que motivaron la concesión de la ayuda, podrá dar lugar al reintegro de la subvención concedida y/o a las sanciones previstas en la normativa prevista en la Ley 38/2003 General de Subvenciones.

Artículo 11.- CAUSAS DE REINTEGRO DE LA SUBVENCIÓN

Procederá en todo caso el reintegro con la exigencia de intereses de demora, sin perjuicio de otras responsabilidades en los supuestos siguientes:

- Obtención de la subvención falseando las condiciones requeridas para ello u ocultando aquellas que lo hubieran impedido.
- Incumplimiento total o parcial del proyecto de obras autorizado por la licencia municipal o inclusión en la ejecución de la obra de conceptos o unidades de obra no amparados por la subvención o falseando el costo final de la misma.
- Resistencia, excusa u obstrucción a las actuaciones municipales de comprobación y control.
- El exceso de financiación con relación al coste de la subvención o ayuda concedida también constituirá motivo de reintegro, y/o recepción de otra subvención por otra entidad pública o

dirulaguntza bat jaso da; ezein kasutan ezin da gain-finantzaketarik egon.

- Deialdi honetan, Zamudio udalerriko eraikinak birgaitzeko diru-laguntzak emateko oinarriak onartzen dituen Zamudioko Udalaren ordenantzan edo indarrean dagoen araudian ezarritako beste edozein arrazoï gertatu da.

12. artikulua.- ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK

Arau-hausteen eta zigorren araubidea azaroaren 17ko 38/2003 Legearen IV. Tituluan eta aplikagarria den gainerako legerian ezarritakoa izango da.

13. artikulua.- APLIKAGARRIA DEN ARAUDIA

Dirulaguntza hauei aplikatuko zaie deialdi honetan araututakoa, Zamudio udalerriko eraikinak birgaitzeko dirulaguntzak emateko oinarriak onartzen dituen toki-ordenantzan araututakoa (Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren 141. zenbakian argitaratua, 2020ko uztailaren 24an), aplikatuko zaie dirulaguntza hauei; bertan arautu gabe dagoenaren kasuan, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legean eta uztailaren 21eko 887/06 Errege Dekretuaren bidez onetsitako garapen-erregelamenduan ezarritakoa aplikatuko da.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Arauketa hau indarrean jartzen den egunean ebatzi barik dauden eskaerak, deialdi honetan sartu direla ulertuko da, eta aurkezpen-epeko lehenengo egunaren arabera egingo da lehentasun-hurrenkera; horrek ez du eragotziko, beharrezkoa denean, aurkeztu beharreko dokumentazioa zuzendu edo osatu behar izatea, deialdi honetan ezarritakoaren arabera.

privada, sin que pueda darse en ningún caso sobrefinanciación.

- Cualquier otra causa recogida en la presente convocatoria, en la Ordenanza del Ayuntamiento de Zamudio por la que se aprueban las Bases Reguladoras de la concesión de subvenciones a la rehabilitación de edificios en el término Municipal de Zamudio o establecida en la normativa vigente.

Artículo 12.- INFRACCIONES Y SANCIONES

El régimen de infracciones y sanciones, será el establecido en el Título IV de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre y demás legislación que resulte aplicable.

Artículo 13.- NORMATIVA APLICABLE

A estas subvenciones les será de aplicación lo regulado en la presente convocatoria, la Ordenanza local por la que se aprueban las Bases Reguladoras de la concesión de subvenciones a la rehabilitación de edificios en el término Municipal de Zamudio publicada en el Boletín Oficial de Bizkaia nº 141, de 24 de julio de 2020, y en su defecto, lo establecido en la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y su Reglamento de desarrollo aprobado por Real Decreto 887/06 de 21 de julio.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA

Aquellas solicitudes que a fecha de entrada en vigor de esta regulación estén pendientes de ser resueltas, se entenderán incluidas en la citada convocatoria, con efectos en orden de prelación al primer día del plazo de presentación, y se someterán a esta regulación; todo ello sin perjuicio de que, en su caso, deban subsanar o completar la documentación a aportar, conforme a lo dispuesto en la presente convocatoria.

ALKATEA

Lander Aretxabaleta Jauregi



www.zamudiokoudala.net

Sabino Arana plaza 1, 48170 Zamudio, Bizkaia

Tel: 944060990 / Faxe: 944030622 / udala@zamudiokoudala.net